

Martin Elizondo Aragon

*Odieta,
Nafarroa
(1922)*

Aurkibidea

Biografia



Odietako Latasa herrikoa.
Gurasoak ere Odietakoak
zituen, aita Latasakoa
bertakoa, eta ama Ziaurritz
herrikoa.

Zintak

ODI-002

- **Proiektua:** Alex Artzelus Mujika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Data:** 2011-09-05
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

ODI-006

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1984-01-01
- **Iraupena:** 11 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

ODI-013

- **Proiektua:** Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1984-01-01
- **Iraupena:** 3 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Aranzadi elkarte

Pasarteak

1. Ikazkintzaren inguruko azalpenak I

- **Erref:** ODI-006/001
- **Iraupena:** 0:07:35. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:07:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Ikazkintzaren inguruko azalpenak.</p>

Transkripzioa

- Plazuela bat ola, izango du... bueno, segun zenbat kantidadenai duen ein, nai badu aundiz egin? plazuela aundiagokoa. Erdi-erdien, paatzen die lau mustike -mustike, 'estaca', mustike-... uekua, erdien itximenia bezala; gero? makillek ola, ayen kaskotik gora, ola, emen geldi daiela itxemenie. Mustikain kont(r)a? asten da paatzen ola, lemizik larriek, larriek, larriek, zenbatenes larriago... sanoa bear du, e? ustelik etzala izendu. Ta, gero ioaten da? ola paatus, monton aundie! konoa!... Ondarrean? me oye kuziek?... zuloik ez gelditzeko klasëa; ayeki tapatzen da... zulo guziek. Ya, akabatzen da ola? beño gero dana oso interesantëa?... idurie; idurie ezta edozein lurra... ona, e? zeatik... lur klase batzuk badie? bota txondorrai? erre? ta joaten dienak barnea; idurie ez, idurie iten da, umedezitu, ta ala egosten da, bueno, lemizik ola, gero... orbela, orbela bakizu zer den?

- Bai, bai, bai.

- Ostõa, ingurus inguru?... ta gero, idurie, idurie... balime(d)a bere artaa, lurrek balio balimedu? ongi dao, bestenas karri bear da beste leku äteti. Arreki? ingurus inguru, ingurus inguru, tapatu. Gero, itxemenia eo? goitikoxkotik? sue in, zearko aldean, brasa majoak... bota, andik bear du bota, mustika ayen ärtian, lemixi paatzen da, gauze mee samarra, brasa ayek su artzeko klasean; ya, bein, artu duelaik su te inderrean daolaik? iten zaio? tximene öre? tapatu!... ta, gero? ingurus inguru? zuloak in idurie, andik ekia atratzeko, ez esplotatzeko. Tapatu? te, kas in arre. Geo? tzearreko aldian uzten die eurrek ere?... egosis bezala? dayen bezala? iten da kaskoa bajatu, ta beis bete, beis bete, peligro aundiko... lana da; betetzen delaik? paatu berriz, orbela? ta beis idurie ta, kieto. Andik bi-iru egunen buruen? segun, noiz bajatzen, gaues bijiletar tzaio, e? imajinaria! zeatik... atsa artzen badu? iten da erre, ta orduen, orduen ezta iketzik, ez, diabruak ematen du! ta... berriz, bajatzen delaik kasko ore? urbil örtako egoten da prestatuik? denborik ez galtzeko? artu? te beis bota; esportaki te... segun nola, beis paatu? t'ola, ola... segun, iru-lau aldis, segun, bos(t)... nolako makilia den, zeatik, a(r)itze kostatzen da geiago, egostëa? bagoa beño, ta entzinoa oanik geiao, zenbatenes gogorra? geiago, beño iketza da obëa. Obenen-obenena? entzinuana; gero, aitzena? ta, gero? bagöa. Bueno, ya, in de ori? kentzen tzaio idurie alde batera? ta, asten da barratzen: zarre batzuz? ortzak? börnisköak; ola barratu? te, ure balimeda urbil? su beti, su erreto pixkuat izeten du? aat bota? ta, itzeli, ezpada urik urbil? al den moduik obenëan? itzeli, barra-barra paratu? ta ya seguro daoleik itzelik? eztela... agai suik? palaki? zakuetaratu. Gero? mandoaki o karroaki edo zeraki? karretera bastarrea; ori duk, nik kus dutena... bai. [Idurie] zaio 'cisco', zeatik... si no es cisco propio? por ejemplo en una tierra artzillosa? le echas? se quema, y al quemar entra de den-, adentro, y entonces respira, pero el cisco se humedece, se le hacen unos agujeros y suda, y al...

- Segi, segi, segi euskaraz igual, bai...

- Iten da umedezitu te umedezitzeaki? gelditzen da ya, kuerpo... kuerpoa iñik, t'orduen? ezta barnea joaten, egoten da an geldi, beño ortako bear du... espeziala, e? espeziala.

- Baina erran duzu 'orduen egiten da idurie' edo horrelako zerbait, ezta?

- Idurie... idurie emen billetzen da? lengo denboetan iketza in? te utzi, ta gero... bee artako lurre, balio balimedu? ore bea da idurie, ezberen billatzen da!... leengo iketza ayetaik? gero berriz ere bai, te egun... lau, igual bos aldis, sei aldis ere bai!... idurie ure bera, o antza; ezta nunai izeten, e?

- Lur-mota bat edo halako zerbait?

- Bai, lur-klasea, ortarako.

- Idurie?

- Idurie, bai; sue azpitik iduki? eta... erre in biarrean? iten da izarditu, ta izerditziki? pues eztu uzten... ats artzea, solo... zulo uts batzutik, bai.

- Eta gero esan duzu 'muskitien esiak'?

- Mustikien; mustike paatzen dire lau, ta, au, zulo artan? be-, lemixko bean? brasak botatzen baitie goittitik? paatzen da añarra edo arba edo... aise su artzeko...

- Zer da añarra edo arba?

- Iñarra? arba?... kaskoa, punte, arbolan punte, arba, er-, esaten diou guk.

- Arba?

- Arba, ta... por ejemplo, sesiek moztu? ta gero kartzen tuguleik? suerako? pues arba esaten diogu guk orri; lomismo arbolana nola sesie, sesigurie, e?

- Puntari esaten zaio? eta zertarako erabiltzen da?

- Pues, ori? aisago sue iteko, aisago su iteko, zeatik sue iten asten baldin

bazaa etzaa asiko lodieki, asiko zaa meayeki; meayei esaten diogu guk arba, ta añarra... illarraka!... añarra...

- Hori da? illarraka? hemen erraten da añarra...
- Bai... añarra ta illarraka, biak, bietaa esaten tzaio.
- 'Zarre batzuk burniskoak' (erran duzu); zarreak zer dira?
- Zarrea? rastrilloa, rastrilloa; dientes de hierro porque, si tiene de madera, como hace contacto... con el carbón que está aún a medio apagar, se queman los dientes y te quedas sin zarre...

2. Ikazkintzaren inguruko azalpenak II

- **Erref:** ODI-006/002
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:07:35. **Bukatu:** 00:11:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Ikazkintzaren inguruko azalpenak.</p>

Transkripzioa

- ... iten tzen, biño ya utzi zen kostunbrë oi. Gero? zu, eztakit oroitiko zaran, alako... autojena, ba... osijenoaki ibili baiziren, autoak denboa puskuates, posgerran...

- Oroitzen naiz, bai, deposito handi batzuekin...

- Bai, ta deposito aundiek? konsumitzen zuten? gasa iteko? iketza, ta izendu zuen, aprezio asko, urte pare batez, bizpiru urtes? aprezio asko, ta orduen? yendea animatu zen itea iketza, oso garesti saltzen baizuten. O sea, ya, len, atzenduik zagon gauz ore? in tzan berritu, torri zelaik gasojenoan... istorio berriaki. Oai? ez da deus; gero iketza itän tzen... apartako lekuutan, karroik eta ibili etzezaken toki oietan, egurre ezpaizaiken karri? koste aundie baizauken? ta iketza berriz kartzen tzen bastante... aise? mandoaki. Orduen? egurr ore an, usteltzea utzi biarrean? iten tzuten iketza. Klaro, lurre ta gauze oiek, kusten zuten b(e)len, baietz, balio zuela, o sea, iduriek balio zuela. Ola, ola, orai ezta iten bate.

- Ez?

- Ez! emen ez beñezpin! Gero, atra zen bertze prozedimentue t'Iratikoak iten zuten bestek... gizenik? eztakit nola egosten tzuten, kalderetan ta, ya... modernoa(g)oa, beño lengoas?... ola.

- Eta erran duzu klaserik hobeena zirela...

- En(t)zinoa, gogorren gogorrena, gero aritza, eztait, ta bagöa; emen entzinoik ezta, biño badaki(t) nik, oberena?... entzinoana; emen aitze ta bagöa. Klaro, beti-beti biar du sana, e? sano daola, naiz... fuertia izen, koropilloa ta... fuertia! eztu inporta, sano, sano; ustela ez, ustela da... oso tranposoa. Ustela artan... autse formatzen tzen, ta... gero, ustes itzalik zagon? sue an, falsëdadean egoten tzen an; orgatik miaitzen tzen len... sanoak. Ustela... tronko arrek kentzeko aise balin bazauke? kentzen zeakion, beste atzuk izeten zuten barnean ore? ya, hala! joaten tzen.

3. Urteberriko "Txiribiri" kanta ezaguna

- **Erref:** ODI-013/001
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Urteberri egunean kantatzen zen kanta. Eskean irteten ziren eta intxaurrak, gaztainak, pikuak... jasotzen zituzten.</p>

Elizondo Aragon, Martin | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com